

tipi-tapa tipi-tapa, korrika!

Egin zure lekukoa eta eraman ezazu Korrikara, zure mezuak ere bidea egin dezan. Apain ezazu zure gustura. Ez du benetakoaren antza izan beharrik. Guk arraintxoak margotu ditugu, zergatik ez?

Material hauxe erabili dugu:

bi benekol, soka, komuneko paper-rulo bat, zeloa, kartoia, margoak (errotulagailuak edo tenperak), papera (mezua idazteko).



Ondo garbitu botilatxoak eta kendu plastiko inprimatua.



Botilatxoek eta komuneko kartoi ruloak diametro berdintsua izan behar dute.



1 Margotu ruloa. Koloreak biziago gera daitezen, lehenik zuriz pintatu, eta ongi lehortzen denean, gustuko irudiak marraztu. Irudiei ertzak errotulagailu beltzez egiten badizkiezu, nabarmenago geldituko zaizu.

2 Mezua. Orri laurden bat moztu eta mezua idatzi bertan. Papertxoa bildu eta botilatxo batean sartu. Ondoren, ruloa jarri gaineratik, eta azkenik, bigarren botila sartu ruloan, buruz behera.

3 Elementuak zelos itsatsi. Prest duzu lekukoa. Irudi bat zintzilikatzen badiozu, askoz ere politago!

